


ARRASATE PRESS

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko abenduaren 3a / 697. zenbakia



ARRASATE, AKORDEOIAREN HIRIA

ASTEBURUAN NAZIOARTEKO XII. ETA GIPUZKOAKO XXV. LEHIAKETAK

ORAIN ETA HEMEN: OSOKO BILKURA/6 • ZAHARRAK: ITURBIDE ERALDATZEKO LANAK/14

GREMIOEN GIDA/19

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 3**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- ZAPATUA, 4**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- DOMEKA, 5**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- ASTELEHENA, 6**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- MARTITZENA, 7**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- EGUAZTENA, 8**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30
- EGUENA, 9**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- EGUBAKOITZA, 10**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99

TELEFONOJAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Igalatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

- LARRIALDIK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelenehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

- Arrasate**
Astelenehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok, eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZAK**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiatuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (elebiduna) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna)	Santa Marinako eliza Zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:30 meza nagusia (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	Domeka 11:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna)	San Lidro eliza Zapatua 20:00 (euskaraz)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Domeka 12:30 (elebiduna)

OHARRAK

'COCIDITO MADRILEÑO'
Udaleko Kultura Sailak *Cocidito madrileño* antzezla-
na ekarriko du. 2005eko
martxoan antzeztuko dute
Amaia Udal Antzokian, eta
dagoeneko sarrerak saltzen
dabiltza, txarteldegian, 12
eurotan.

'EL HUESPED DEL SEVILLANO'
Izaskun Murgia Elkarte
Lirikoak *El Huesped del
Sevillano* zarzuela eskani-
ko du hilaren 11n, 12an,
17an eta 18an Amaia Udal
Antzokian. Sarrerak salgai
daude dagoeneko.

GARAPENA, BERBAGAI
Mondrauetarrak taldeak
mahai-inguru interesgarria
antolatu du hilaren 13rako:
*Ekonomia eta garapena
Debagoienean*. Garaia
proiektuko Andoni Gar-
tziak, Mankomunitateko
presidente Inazio Lakun-
tzak, Lurra talde ekologista-
ko Alberto Friasek eta
Goienaren sortzaile Mikel
Irizarrek esku hartuko
dute. 19:30ean izango da,
Monterronen.

HARREMANEN ERAKUSKETA
Harremanek ibarreko
hainbat margolariren
erakusketa ipini du
Monterronen. Margolanen
salmentan jasotako dirua
San Clemente proiektura
bideratuko dute.

AEDrenAGENDA

DEBAGUNEN EGUTEGIAK ETA KANTU LIBURUXKAK, SALGAI
Debaguneren 2005eko
egutegiak eta herri-kantuen
liburuxkak salgai daude
AEDn. Lehena 2,7 eurotan,
eta bigarrena, 2,6 eurotan.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00,
15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta
21:00.

IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Ale-
cop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea,
Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35,
14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35,
20:35 eta 21:35.

IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa,
Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñar-
ra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde,
Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30,
15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta
21:30.

IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxi-
bar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obe-
nerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta
Eroski.


Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05,
14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05,
20:05 eta 21:05.

IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala,
Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Ale-
cop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

**140 miloi
pezeta batu
gura zituzten
parrokiarako**

San Juan Bataiatzailearen parro-
kia zaharbertitzeko sortutako
batzorde eragileak kanpaina bati
ekin zion lanekin jarraitzeko.
Erakundeei eskatutako dirula-
guntzez gain, herritarrengana jo
zuten, horiei ere babes eskatze-
ko. Parrokia berritzeko, guztira,
420 milioi pezeta behar zituzten.




BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



— Umea falta dela ikusita larritu egin dira.

JON IRAEGI

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



**Danbaka kontzertuak eta
elkarrizketak Arrasate Irratian**

Askorentzat ohi baino luzeago izan-
go da asteburua; Arrasate Irrati-
ko esatari eta teknikariak ere aben-
duaren 9an itzuliko gara zuzene-
ko saioekin. Eguena bitartean,
baina, 107.7an, musika kontzer-
tuak eta hainbat elkarrizketa bil-
duma izango dituzue entzungai.

MALENKONIA ETA MUTED

Ohi dugun moduan, Danbaka
musika lehiaketako beste bi kon-
tzertu entzuteko aukera izango
duzue datozen egunetan. Doinu
lasaiak baina era berean landuak

dituela erakutsiko digu zapatuan
Oñatiko Malenkonia taldeak.
Domekan, berriz, lasaitasunerako
baino gehiago, dantza edo saltorako
doinuak izango ditugu, Arrasate
eta Abadiñoko lagunek osatutako
Muted taldearen eskutik.

HIRU ELKARRIZKETA BILDUMA

Asteburuko hitzordua ahaztu gabe,
astearen gainbegiraturua egingo
dugu, hainbat lagunen solasaldiak
berreskuratuta. Asteburu luzea
izanik, bilduma bat beharrean,
hiru prestatu dizkizuegu.

HAUGIROA!

MINIMOA Eguena, 25	1°C
MAXIMOA Eguaztena, 24	13°C
ASTEKO EURIA (l/m²)	16,1 L


San Juan auzoan jasotako datuak




ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 Asteko gainbegiraturua (I):
Larraitz Arando hiesaren gainean; Juan
Luis Bikuña kazetaria...
- 16:00 Danbaka: Malenkonia.
- DOMEKA**
10:00 Asteko gainbegiraturua (II).
Durangoko azokaren inguruan.
- 16:00 Danbaka: Muted.
- ASTELEHENA**
10:00 Asteko gainbegiraturua (I).
- MARTITZENA**
10:00 Asteko gainbegiraturua (II).
- EGUAZTENA**
10:00 Asteko gainbegiraturua (III).
- OSTEGUNETIK EGUBAKOITZERA**
09:00-11:00 IGO AUTOBUSERA!
11:05 Musika
12:05 Arrasate Irratiko
albistegi laburra.
- 12:20 Zorion agurren tartea.
- 12:30 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
- 14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate
Irratiko albistegi laburra.

MALEINKESTA/ Itxuraz, Mondrague da Donostiakin batera Gipuzkoako herri karuena.



IGOR LARRAÑAGA
Langillie



AITOR BEREZIBAR
Langillie



NEKANE ALKORTA
Langillie



JESUS MARI ELKORO
Langillie



ELENA ARENAZA
Langillie



MAITE OLABE
Langillie

Ez dot entendiduten zergaittik pasetan dan hori. Herriek karu dauz ikasle moratuak dauzelako, baiñe gaitzakuen ez dakit zergaittik pagau biher doun beste lekuetan baiño gehixau.

Ez dakit zergaittik pasetan dan hori; ez dot uste justifikate dauenik. Ogixekin, adibidez, alde haundixe dau leku baten erosi edo bestien erosi. Zergaittik pagau biher dou guk gehixau?

Neuk pentsetan dot hamen karuau dala, beste leku batzuetan baiño diru gehixau dauelako. Mondraguen dauen komertziue mailla altukue da, eta jentiek erosi egitten dau, hortan...

Ez dot pentsetan hori egixe danik, baiñe produkto asko dauz eta danak ez die berdiñak. Egixe da produkto basikueta Mondraguen kompetentzia txikiñe dauela, ixer monopolie dau-eta.

Ez dot pentsetan hori justifikate dauenik, baiñe normalien diru gehixen dauen lekuen produktuek karuau egoten die. Izen be, Mondraguen ondo bizi garelako esango neuke.

Bai, igerten da hamen beste leku batzuetan baiño gehixau pagetan doule. Gu Riojara jueten gare, eta marka igualeko supermerkauek gauzak merkiu egoten die.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK OHIKO UR PUTZUA Herritar batzuek esan digute Zurigin Kantoian, Biona tabernaren ondoan, aspalditik ur-hodi bat apurtuta dagoela. Horren ondorioz, euria egiten duen bakoitzean ur putzua sortzen da kantoian. Esan digutenez, hodi hori orain dela urte batzuk apurtu zen, baina oraindik ez du inork konpondu. Horregatik, eskatzen dute dagokionak konpon dezala.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7 KIROLA /8 KULTURA /12

Sahararako elikagaiak

NUBIK eta Udalak saharar errefuxiatuendako elikagaiak batzeko kampania abiarazi dute.

Mondra EHUren kontra, bihar

Mondrak Realeko harrobi den EHU taldearen kontra jokatu du bihar 15:30ean, Atxabalpe futbol zelaian.

Eneko Barberena

Eneko Barberenak poesia liburua argitaratu du, eta elkarrizketa zabaldu egin diogu.

ASTEKODATUA

19

AKORDEOI JOTZAILE, NAZIOARTEKO LEHIAKETAN

Hemeretzi akordeoi jotzailek esku hartuko dute Nazioarteko XII. Akordeoi Lehiaketan. Europako Ekialdetik eta Asiatik datoz gehienak, baina bada euskaldun bat ere bai.

BESTEKEESANA

“ Etxerategin egin duen batzar orokorrean erabaki dugu mezua egoera politiko aldakorrari egokitu beharra dugula. Horrez gain, atera dugun ondorio bat da elkarte honen premia handia dagoela, 1991n zegoena baino handiagoa. (...) Elkartearen lehentasun bat da presoen eta gure, senideon, eskubideen urraketak salatzea. Dispersioak presoei eta senitarteko eta lagunei min handia egiten digu. Azken finean, presoak bisitatzerako joaten direnak dira errepidean hiltzen direnak. Eurak Euskal Herrian egon behar dira, eta guk ez daukagu astero bitziza arriskuan jarri beharrik. (...) Hori egin dutenarekin ados egon edo ez, onartu beharra dago preso horiek izaera politikoa dutela, delitugile arruntak ez direlako”

JON BARRENA
 'GARA'/04-11-26

HERRITARRENBERBAK/ Ander Etxeberria



Akeiren aurpegi iluna

Notizia asko dago egunotan. Batzuk indarra hartzen (Madril aldetik etortzeko den bisita, adibidez), beste batzuk gaurkoa dute egun berezia (Euskararen Eguna, esate baterako, egun guztiak bereziak behar dituen) eta badaude indarra galtzen ari direnak ere. Azken hauen artean dago Akeiko zabortege-eraraustegia.

Bukatzeaz daude Akeiko lur zikinak garbitzeko edo kontrolpean jartzeko lanak. Ikusgarria da egiten ari diren obra: zazpi geruza, emari sistema, etab. Denak beharrezkoak izango dira aurretik egindako kaltea (kalte bat) osatzeko. Hori da albistea, pozteko modukoa neurri batean.

Baina badauka Akeik aurpegi bat geruza horien azpian geratu ez dena. Ardura-tzekoa den alderdia, eta mediotan zeharka edo kasualitatez agertu dena erraustegien inguruko polemikaren inguru-

ruan. Hamabost egun dela Donostiako telebista bateko debatean azaldu zen, besteak beste. Erraustegien aldeko argumentu bat da gaurkoek, lehengoekin alderatuta, efektu kaltegarriak kutsatzaile askoz ere jaulkitzen dutela. Bada, debate horretan Diputazioko ordezkariak adierazi zuen: “Debagoienean Akei izan zuten eta uste dut inguruko hartako gaixotasun larrien tasa ez dela beste lekuetan baino altuagoa”.

Konparaketa ederra, urrunagoko adibiderik jarri gabe (edo agian, Arrasate

urrun samar geratzen delako), hango ikusleak lasaitzeko-edo. Mahainguruan zegoen medikuak erantzun zion, ordea: “ondorioak urteetara ager daitezke”.

Zer pentsa dezake telebista kate hori sintonizatu zuen bailara honetako hiritar batek? Erakunderen batek ganorazko informazioa eman beharko luke Akeiren alderdi horri buruz. Eta ez bakarrik Donostia aldekoak lasaitzeko...

“Bukatzeaz daude Akeiko lur zikinak garbitzeko lanak, baina badauka aurpegi bat geruza horien azpian geratu ez dena”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
 20500 ARRASATE
 Tel.: 943 71 25 11
 Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
 Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
 Xabier Urzelai
 Ubane Madera

MAKETAZIOA
 Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
 Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
 Natali Martínez
 Imanol Elortza
 Amaia Mundiñano

ADMINISTRAZIOA
 Agurtzane Gainzarain
 Ane Berezibar
 Iratxe Bengoa

BANAKETA
 Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
 55-1124/88

ISSN
 0214-4654

TIRADA
 7.350 ale

Goiena
 Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
 Kultura saila



Gipuzkoako
 Foru Aldundia



Arrasateko
 Udala



Aramaioko
 Udala

ASTEABIHITZETAN

Arrasateko nekazarien azoka

Arrasateko hamabi baserri elkartu ziren zapatu goizean Seber Altube plazan egin zuten nekazari azokan. Bedoña, Gesalibar, Musakola eta Uribarri auzoetako baserritarrak izan ziren. Pozik agertu ziren ekimen horrekin, baina urtean azoka bat egitea ez dela nahikoa adierazi zuten. Gaineratu zuten baserritarren egoera ez dela batere erraza, eta egungo gizarte kontsumitzailearen aurrean babesgabe sentitzen direla. Argi daukate erakundeen laguntza ezinbestekoa dela.

Ezker abertzaleak deitutako borroka eguna

Azken polizia operazioen ildora, ezker abertzaleak mobilizazio eguna deitu zuen joan den eguenerako, hilak 26. Eta Arrasaten gazte ugari bildu ziren Seber Altuben eguerdian egin zuten kale agerraldian. *Euskal Herria aitortu, errespetatu alde hemendik* lelopean egin zuten manifestazioa.

Eguenekoa ez zen izan, baina, atxiloketen kontrako protesta ekimen bakarra. Patxi Cabo Eskualde Ospitalean dagoenetik arratsaldero elkartzen dira ospitalearen aurrean.

Zilarrezko Q saria ospitalearendako

Debagoieneko Eskualdeko Ospitaleak Euskalitek ematen duen Zilarrezko Q saria jaso du, egindako kudeaketa onagatik. Sari horiek emateko, Euskalitek Europan erabiltzen duten neurgailua erabiltzen du, bikaintasunaren EFQM neurgailua, hain zuzen. Neurgailu horrek kontuan hartzen ditu erakundeak izan dituen lorpenak, baina horrez gain, kontuan hartzen ditu baita ere erakunde horretako langileak, bezeroak eta zerbitzuak zelán kudeatuta dauden.

Debagoieneko Eskualde Ospitaleko arduradunek pozik hartu dute errekonozimendua, baina albiste pozgarria gehienbat herritarrendako dela gaineratu dute, eurak dira eta zerbitzua erabiltzen dutenak.



Tratu txarren kontrako mobilizazioa

Joan den eguenean, hilak 25, izan zen genero indarkeria salatzeke nazioarteko eguna, eta, horren harira, arrasatearrak mobilizazioa egin zuten *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez!* leloarekin. Emakumeek jasaten duten indarkeriaren kontrako taldeak deitu zuen kale agerraldia, eta arrakasta izan zuen, bostehun lagun inguru batu ziren-eta.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Erreferenduma


A skotan harritu naute erakundeek eta hainbat alderdi politikok herri-kontsultak eta erreferenduma egiteko jartzen dituzten oztupoak. Hala gertatu da, esaterako, astean Arrasateko Udaletxean. EB-Berdeak taldeak Udalatx barruan harrobia egiteko proiektuaren gaineko erreferenduma proposatu du, baina mozioa ez dute onartu.

EB-Berdeak taldeak eta Aralarrek horren alde egin dute, baina Udalean dauden gainontzeko alderdiek mozioa atzera bota dute. Horien esanetan, proiektu hori "onuragarria da, herritarren artean ez dago horren gaineko eztabaidarik, eta oraindik ez dago herri-kontsulta bat egiteko informazio nahikorik". Harrituta utzi naute argudioek. Nik

uste dut herritarren artean badagoela proiektu horren gaineko kezka, eta are gehiago herritarrak azkenean asteotan jabetu direla proiektuaz, aurretik ez duelako inork publiko egin.

Harrobiko enpresak dienez Jaurlaritzako Harrobi Sailak lehenengo zulaketak eta azterketa egiteko baimena eman zien. Legez hala omen da. Hortik aurrera herriak erabaki beharko luke, eta horretarako gailuak ipini behar dira.

ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

'LOTSZAIZUNA' LIBURUAREN AURKEZPENA EGIN ZUTEN MONTEIRONEN

Eguaztenean, Jokin Zaitegi Sariketaren bidez itzulitako *Lotsaizuna* liburua aurkeztu zuten. Oskar Arana aramaioarrak egin du lan hori, John Maxwell Coetzeeen *Disgrace* lana oinarri hartuta. Coetzee 2003ko Literaturako Nobel saria eskuratu zuen, eta horregatik aukeratu zuten sariketa horren anto-

latzaile AEDk eta Elkarlanean argitaletxeak. Aurkezpen ekitaldian, AEDko Unai Bergaretxek, Elkarlanean argitaletxeke Xabier Mendigurenek, Oskar Arana itzultzaileak eta Kutxako Jose Luis Esnalek esku hartu zuten. Horren ostean, euskaraz eta gaztelerez egin zituzten irakurketak. //B.


Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Hanburgesak
Pizzak
Oilaskoak eta
paellak eramateko



arbolapeta



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 79 78 14
ARRASATE



ANAIEN ARTEKO KONTUAK AZKENEKO BERTSO AFARIAN

AEDk bertso afaria egin zuen joan den egubakoitzean, eta berrogei lagun inguru batu ziren elkartearen txokoan. Bertso eskolako lagunak afarian izan baziren ere, argazkian azaltzen diren Xabi Paia eta Fredi Paia ibili ziren bertsoan. Lehenengo aldia zen Paia anaiek elkarrekin bertsoan egiten zutena, eta afarian egon zirenek ederki asko gozatu zuten, anaien artean izaten diren tira-birak bota zituzten-eta bertsoan. Arrasateko Jokin ere animatu zen bertsoaren bat edo beste botatzen, baina egubakoitzean gurago zuen entzule moduan egon. Gura beste jan eta edan ostean —ardoa eta patxarana ederra ei zegoen— egin zuten bertsoan.



EHUN LAGUN BAINO GEHIAGO IBILI ZIREN DOMEKAN ARRASATEKO MUGETAN BARRENA

Joan den domekan egin zuten AEDko eta Leintz Eskola Kiroleko lagunek *Mugarri Mugarri* ibilaldia, eta AEDko Kepa Lizarralde eman digu horren berri: "Inoiz baino jende gehiago animatu da, neurri handi baten Leintz Eskola Kirolekoek esku hartu zutelako. Gaztetxo eta guraso asko ibili ziren, eta ondo gainera. Baina, beste batzuetan egin

izan dugun moduan, domekan ez ginen Arrasateko mugak jarraitzen ibili, ibilaldi hori gogor samarra delako. Gurago izan genuen txoko esanguratsua eta inguruko berezitasunak bisitatu. Hala, Udalako bidean dauden karobietan eta elurzuloetan izan ginen. Esan, baina, muga batetik besterako ibilaldia ere egingo dugula".



BESAIDAKOEN DAKO TXIKI GERATU DA GIPUZKOA

Besaideko lagun betereoek joan den domekan egin zuten Gipuzkoako Birako beste etapa bat. Aritxulegitik Aranora egin zuten ibilaldia, eta sei ordu behar izan zituzten hori egiteko. Argazkia ikusita bistan da Gipuzkoako Birak arrakasta izan duela, domekan 68 lagun joan ziren-eta Aiako harrietan hasi zuten ibilaldira. Normalean baino ibilaldi luzeagoa zela jakinda, jendea ez zen kikildu, eta giro paregabearen egin zituzten kilometro mordoak.

OSOKO BILKURA/ Udaltzeko harrobia, armada espainola, emakumeen kontrako tratu txarrak eta Naval ontziola berbagai

Oraingoz ez dute erreferendumik egingo Udaltzeko harrobiaren gainean

UBANE MADERA

Udalbatzarrak ez du onartu Udaltxen gainean erreferenduma egitea. Berriz, gaitzetsi egin ditu armada espainolak irailean Arrasaten egin zituen maniobra militarrik. Naval ontziolaren gainean ere berba egin zuten. Hori guztiori landu zuten asteleheneko batzarrean.

Azaroari dagokion osoko batzarrean gai-zerrenda potoloa aztertu zuten udalbatzarrak eta luze jo zuten bilerak. Bereziki, lau mozio eztabaidatu zituztelako.


UDALATXEKO HARROBIA

Udaltzeko harrobia dela-eta piztu zen eztabaidarik luzeena. EB-Berdeak alderdiak mozio bat aurkeztu zuen. EBk adierazi zuen gai horren gainean herritarren artean dagoen kezka ikusita, erreferenduma egin beharko luketela. Sei hil baino lehen egin beharko lukete erreferenduma eta erabakia loteslea litzateke. Gaineratu zuen erreferendum horren emaitza jakin arte bertan behera utzi beharko luketela Udaltx zulatzea eskatzen duen edozein lan.

ALDEKO JARRERAK ETA ARGUDIOAK

PPko kide Antonio Palaciosen mozioa barregarria dela esan ostean, adierazi zuen harrobiek etorkizunean lanerako material falta izango dutela eta lur azpiko harrobiak egitea alternatiba egokia izan daitekeela. Gaineratu zuen harrobiek begi-inpaktuari aurre egiteko bide egokia izan daitekeela Udaltzeko harrobia.

PSE-EEko Paco Garciak esan zuen ez duela herritarren artean kezkarik sumatu eta EBren mozioa demagogikoa dela. Izan ere, EBren esku dago Udal Ingurumen Saila eta Jaurlearitzako gobernu-kide ere bada. Hala, kontuan hartuta Jaurlearitzako Mehatze Sailak baimena eman duela Udaltzeko ikerketa egiteko eta Arrasateko Ingurumen batzordeak gaia oraindik ez duela landu, PSE-EEkoek aurpegiatu zuten EBkoiei dagokien erantzukizuna



EAJK, Eak, PPK eta PSE-EEK Udaltxen harrobia egitearen gaineko erreferendumaren kontra bozkatu zuten.

bete ez izatea. PPK moduan, PSE-EEren ustez, harrobiek begi-inpaktuari aurre egiteko bide egokia izan daiteke mendi barruan harrobia egitea.

EAREN izenean, Luis Etxeberriararteunek esan zuen eurek ere ez dutela kezkarik sumatu herritarrengan. Halaber, uste du ez

dela erreferenduma egiteko uneko egokia, ez dagoelako nahikoa informazioa.

Eta EAJren izenean, Agustin Ugartek, esan zuen ekimenarekin bat datozela begi-inpaktua txikituko lukeelako. Dena dela, ikerketaren emaitzen zain egon beharko dutela ere esan zuen.

KONTRAKO JARRERAK ETA ARGUDIOAK

Udaltzeko harrobiari kontra egin ez, EBrekin batera, Aralarako Joxe Etxeberria azaldu zen. Oro har, adierazi zuen gure kontsumo eredua birplanteatu egin beharko genukeela eta gauzak eraikitze orain arte harria-eta erabili beharrean aztertu beharko litzateke-

la beste materialen bat erabiltzeko aukera. Erreferenduma egitea onartu egin zuen, nahiz eta sei hileko epea motzegia iruditu.

Eztabaidak eztabaida, udalbatzarrak ez zuten mozioa onartu, PSE-EEren, PPre, EAJren eta EAren kontrako botoekin.

BESTELAKO IDATZI ETA MOZIOAK

Gainerako mozioen artean, EBk Sestaoko Naval ontziolaren egoerarengatik beste mozio bat aurkeztu zuen. PSE-EEK mozio alternatibo bat aurkeztu zion hari, baina EBk aurkeztutakoa onartu zuen udalbatzarrak EBren, EAJen, EAren eta Aralarren aldeko botoekin. Hala, besteak beste, Sestaoko Navalak talde publikoan sartuta egon beharko lukeela dio mozioak, eta gaitzetsi egin du jardura zibilak eta militarrik banatzeko egitasmoa. Halaber, Eusko Jaurlearitzaren adierazpenarekin bat eginez, zera onartu zuten, besteak beste: Jaurlearitzak zuzenean parte har dezala, "ontzigitzaren eta industria osagarriaren etorkizunerako egitasmo industrial bat diseinatzen eta abian jartzen, ontzigitzaren jardura eta enplegua babesteko".

Bukatzeko, armada espainol egin zituen maniobra militarrik gaitzetsi zituzten EAJren, EAren, EBren eta Aralarren aldeko botoekin. Eta alderdi politiko guztien artean adostutako emakumeen kontrako indarkeria salatzaren zuzen idatzia irakurri zuten.

Udal ludoteka eta gazte txokoen zerbitzua lehiaketara

Osoko batzarrak landutako bestelako gaien artean, onartu zuten batetik udal ludotekaren eta herriko gazte txokoen araudia. Eta bestetik, aipatutako bi zerbitzuak esleitzeko lehiaketa publikoa deitza.

Aipatutako bi zerbitzuok Txatxilipurdi elkarteak egin ditu azken hamar urteotan. Horren harira, Gazte Saileko Blanca Jauregik argi utzi digu zerbitzu horiek lehiaketara ateratzeko

ko arrazoiak legearekin duela zerikusia, administratiboa dela. Alegia, zenbait zurrumurrak diotena ez dela egia eta Udalak ez duela ezelako arazorik izan Txatxilipurdi elkartearekin. Blanca Jauregik azaldu digu zera dela kontua: gazteendako zerbitzuak sortu zituztenean Udalean, orain dela hamar urte, proiektu xumea zela hura eta haren aurrekontua ere xumea zela. Baina, urteek

aurrera egin ahala, kopuruak handitzen joan direla eta legearen aldetik egokiagoa dela zerbitzu horiek lehiaketa publiko bitartez esleitzea.

Hala, bada, udal ludoteka eta gazte txokoen zerbitzua lehiaketa publikora aterako ditu Udalak. Urtebeterako esleitzeko du zerbitzua, bost urtera arte luzatzeko aukerarekin. Lehenengo urteko aurrekontua, gehienez jota, 172.224 euro izango da.

ad **IBABE**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Gorka ileapaindegia
peluqueria

Asteleheneetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Bainuetxe 10 - 943 77 13 78
ARETXABAETA

Gili Gili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

GIZARTEA/ Saharar errefuxiatuei laguntzeko ekimena

Saharar errefuxiatuendako elikagaiak batzeko kanpaina abiarazi dute

IBANE MADERA

Sahararako errefuxiatuei elikagaiak bidaltzeko kanpaina aurkeztu zuten eguaztenean NUBI elkarteak eta Udalak. Arrasaten, abenduaren 10ean hasiko dira elikagaiak batzen. Udaletxean, ikastetxe guztietan eta zenbait saltokitan batuko dituzte elikagaiak.

Azken urteotan moduan, aurten ere egingo dute saharar errefuxiatuei laguntzeko jaki bilketa. Abendutik otsailera bitartean irarungo du. EAEn hiru elikagai batzeaz arduratuko dira: atuna, azukrea eta konpresak. Hala, Arrasateko sahararren aldeko NUBI taldea eta Udala abenduaren 10ean hasiko dira elikagaiak batzen. Honako lekutara eraman ahal izango dira jakiak: udaletxera (Gabon atera arte); Arizmendi Ikastolara, Goieskolara, Lambide Heziketara, Mesedeetako Amaren ikastetxera eta Institutura (abenduaren 13tik 21era) eta Hiper Eroskira eta BMra (abenduaren 10etik 18ra). Hain zuzen ere, ikastetxetara atun latak eta azukrea eramatea eskatu dute; eta hipermerkatuetan konpresak ere utzi ahal dira.



Udaleko ordezkariak eta NUBI elkarteko lagunek aurkeztu zuten sahararren aldeko kanpaina.

Gero, Arrasaten eta gainerako herrietan batutako jakiak EAetik bidaliko duten karabanan eramango dituzte Saharara. Hain zuzen ere, karabanarako kamioiak lortzeko dirulaguntza behar

dutela ere jakinarazi du NUBIK. Hala, bada, diruz lagundu gura duenak honako kontu korrontea erabil dezake horretarako: 30350080940800054177.

Eta bilketan edo gero egin

beharreko paketatze lanetan lagundu gura duenak, berriz, badu lanerako aukera. Horretarako, udaletxera (943 79 09 00) edo NUBIra jo beharko du (609 14 25 16 edo 661 33 85 87).

Hiru arrasatear Auzitegi Nazionalera

U.M.

Gaur, barikua, herriko hiru gaztek Madrilgo Auzitegi Nazionalan deklaratu dute. Terrorismoarekin lotutako delitu batengatik daude akusatuta, Matilde Martin zinegotzi sozialistak salatuta.

PSE-EEko zinegotzi Matilde Martinek Bergarako epaitegian esandakoaren arabera, 2002ko maiatzaren 30eko osoko bilkuran, Lur Pagoagak eskuekin pistola forma egin eta tiro egiteko keinua egin zion, harekin zeudenak oihuka

eta irainka zebiltzan bitartean. Horren ondorioz, beldurrak eraginda, hura eta alderdikideak joan egin zirela aretotik. Gaineratu zuen hurrengo egunean mehatxu dei bat jaso zuela etxeko telefonon. Eta bi egun geroago, Hiper Eroskin hasieran bi lagunek eta gero lauk irainak eta mehatxuak egin zizkiotela. Bidea oztopatu eta ez ziotela aurrera egiten utzi; bizkartzainek babestu behar izan zutela. Eta horren ondorioz, erostakak bukatu barik joan behar izan zuela Eroskitik. Zinegotziaren esanetan, gertaera horietan, besteak beste Gaizka Azkaratek eta

Saioa Altzuak parte hartu zuten. Eta Gaizka Azkaratek egin zizkion irainik gogorrenak.

ESANDAKO GEZURRAK SALATU

Hiru akusatuek, berriz, ukatu egin zituzten zinegotzi sozialistak esandakoak. Lur Pagoagak adierazitakoaren arabera, osoko bilkuran ez zion inori irainik eta mehatxurik egin. Eta gezurra dela PSE-EEkoak beldurrarengatik joan zirela; torturarekin lotutako gaia landu behar zelako alde egin zutela aretotik adierazi zuten gazteak.

Gaizka Azkaratek eta Saioa Altzuak ere ukatu egin zuten sala-

tutakoa. Are gehiago, besteak beste, Gaizka Azkaratek adierazi zuen Eroskin zeudela, gizon bat gerturatu zitzaizola kontuz ibiltzeko mehatxua eginez. Gizonari argibideak eskatu zizkionean, zinegotzi sozialistaren ondoan ikusi zuela. Horrenbestez, haren bizkartzaina zela pentsatu zuela. Gaineratu zuen, besteak beste, 30eko bilkuran Matilde Martinek berak "payaso" esan ziola, eta horregatik argibideak eskatu zizkiola Eroskin. Bukatzeko, esan zuen gezurra dela zinegotzia erostakak bukatu barik joan zela, aparkalekuan ikusi zuten-eta.

LABUR

Udaltzeko harrobiaren kontrako taldea

Batzarra deitu dute Udaltxeren egin gura duten harrobiaren kontrako taldea sortzeko. Interesa duenak abenduaren 13an, 18:30ean du hitzordua, Monterongo hirugarren solairuan.

Nortasun agiriak egiteko eta batzeko oharra Udaletik

Udaltzaingotik jakinarazi digute urrian egindako nortasun agiriak iritsi direla Arrasatera; hala, bada, dagoeneko joan daiteke Udaltzaingora eta agiriak hartu. Bestalde, esan digute hilaren 15ean datozela nortasun agiri gehiago egitera. Egun horretarako txandak abenduaren 13an, astelehena, emango dituzte.

Ibarreko ekonomia eta garapena eztabaidagai

Abenduaren 13an, Mondragoetarrak taldeak antolatuta, *Ekonomia eta garapena Debagoienean* mahai-ingurua egingo dute Monterronen. 19:30ean hasiko da. Mikel Irizar (Goiena), Andoni Gartzia (Garaia), Alberto Frias (Lurra taldea) eta Inazio Lakuntza (Mankomunitateko presidentea) ibiliko dira berbetan.

Zenbait zerga ordaintzeko borondatezko epea

Udal Hilerriko panteoien zaintza zerbitzua ordaintzeko borondatezko epea abenduaren 31n bukatuko dela gogorarazi digu Udalak. Baita 2004ko hirugarren hiruhileko zaborren zerbitzua ordaintzeko epea ere. Eta jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu bereziarena ere bai.



Amagara

Erdiko kale 54 behea ARRASATE Tel.:943 79 09 09

Etxean zaindu zaitez, behar dituzun produktu guztiak ditugu.

% 10eko deskontua, urtarrilaren 5a arte.

Gabonetan edertasuna oparitu!



ARTXIBOA

Mondrak azkeneko bi partiduak hamar jokalariekin amaitu ditu, eta hori da bihar zaindu beharko duten kontuetako bat.

FUTBOLA

Realaren harrobiaren kontra neurtuko ditu indarrak Mondrak

Euskal Herriko Unibertsitateko mutilak hirugarrenak dira sailkapenean

XABIER URTZELAI

Mondrak EHU talde gaztearen kontra jokatuko du bihar 15:30ean, Atxabalpen. Arrasatearrek kontrario gazteak baina maila handikoak izango dituzte aurrean, Realaren harrobiko jokalariek osatzen dute-eta EHU taldea.

Aurtengo berritasunetako bat izan da talde hori, Realak hartu du-eta. Talde txuri-urdirak igartzen zuen gazte mailatik hirugarren mailara jauzi handiegia zegoela, eta hori konpontzeko asmoarekin hartu zuten talde hori. Gura bezain

ondo hasi ez baziren ere, Realeko gazteek dagoeneko hartu diote neurria preferente mailari. Liga hasieran azkeneko postuetan ikusi genituen, baina zazpigarren jardunalditik aurrera gora egin eta orduz gero maila ona erakutsi dute. Bi jardunaldi egin zituzten lehenengo postuan, eta beste bi jardunaldi bigarrenen. Orain, hirugarrenak dira Tolosaren eta Ordiiziaren atzetik.

AZKAR JOKATZEN DUEN TALDEA

Realdeko harrobiko taldea izanda, jokalariek teknikoki maila onekoak dira. Ez daukate preferente mailako txakur zaharren

esperientziarik, baina jokalaria azkarrak dira, eta gurago dute egoera onean dagoen futbol zelaian jokatu. Eta, Atxabalpek baldintza horiek ederto betetzen ditu.

MONDRAK HOBERA

Pasaiaren kontra Mondrak puntu baliotsua eskuratu zuen, baina jarraitzaileak zapoze gazi-gozoarekin itzuli ziren, Mondrak gehiago merezi izan zuen-eta. Joko aldeetik, Arrasateko entrenatzailearen esanetan denboraldiko partidu onenetakoa egin zuten. Ea hobekuntza hori Atxabalpen erakusten duten, eta ea oraingoan epaileak inor kanporatzen ez duen.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Abokajarro - Dribling	3-6
Manhattan Pippol - Ekipo Aldeano	8-5
Betrayer - La Kuadrilla	8-5
HLB 108 - Lasagabaster	3-4
Irati - AC Surcos	6-2
AT Celaya - Iriztu	2-2
Goma2 - Fuxion	3-2
You Know! - Saukelu Scream	2-1
Torpedo Musakola - Tomahawk	3-6
Billy & The Cowboys	Deskantsua

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. Irati Taberna	8	5
2. You Know!	8	5
3. HLB 108	8	5
4. AC Surcos	8	5
5. Goma2	8	4
6. Lasagabaster	7	5
7. Betrayer	6	4
8. Saukelu Scream	6	4
9. Dribling	5	5
10. AT Celaya	5	5
11. Iriztu	5	4
12. Ekipo Aldeano	3	5
13. Torpedo Musakola	3	5
14. La Kuadrilla	2	5
15. Manhattan Pippol	2	5
16. Tomahawk	2	5
17. Abokajarro	2	5
18. Billy & The Cowboys	2	4
19. Fuxion	0	5



ONDO IBILI ZUBIAN, EZ DAGO JARDUNALDIRIK

GOMA2 TALDEA DA ORAIN ARTEKO INDARTSUENA

Ikustekoa da nola dabilzan Goma2ko mutilak, partidurik galdu ez duen talde bakarra da-eta. Sailkapenean bosgarrenak dira, baina gainontzekoek baino norgehiagoka bat gutxiago jokatuta dutelako. Aranburu, Txetxe, Taxi, Galdos eta konpainia serio dabilza aurtun, eta kontuan hartzeko moduko taldea dela erakutsi dute; argi ibili eurenkin. Bestalde, oraingo asteburuko zubia dela-eta, Zaldibarren atsedendaldia izango da, eta deskantsu hori ongi etorriko da Gabonen aurretik jokatuta behar diren partiduetarako.

Abenduko bigarren asteburuan jokatuko dute Zaldibarko Txapelketako seigarren jardunaldia. Orduetarik ez dugu jarri, jendea nahas ez dadin. Baina motorrak berotzen joateko, jakin, Saukelu Scream eta Torpedo Musakola taldeen artean derbia izango dela. Zigorrolako talde onena nor den erabakitzeke partidua izango da datorren asteburuan jokatuko dutena.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

SASKIBALOA

Mugarri Alkesa - Erro y Eugi

Seniorrak. Gaur. 20:00. Iturripen.

Mugarri Alkesa - Azpeitia

Kadeteak. Zapatuan. 10:00. Musakolan.

ERRUGBIA

Arrasate - Gernika

Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Garagartzan.

FUTBOLA

Mondra - EHU

Preferentea. Zapatuan. 15:30. Atxabalpen.

Zarautz - Mondra

Ohor. Gazteak. Zapatuan. 15:45. Zarautzen.

Arrasate - Burumendi

Gazteak. Zapatuan. 11:00. Atxabalpen.

PILOTA

Deskantsua daukate.

ESKUBALOA

Deskantsua daukate.

EMAITZAK

PILOTA

Gipuzk. Txap. Tolosa - Arrasate12-22

SASKIBALOA

Seniorrak: Padura - Mugarri Alkesa77-64

Gazteak: Mugarri Alkesa - Iraurgi65-67

Kadeteak: Mugarri Alkesa - Cald. Zaher .54-58

ESKUBALOA

Lehen territ: AGR Arrasate - Bidasoa24-26

Bigarren territ: Elgoibar - Arrasate14-12

Gazteak mut: Gatz Museoa - Urola29-26

Gazteak neska: Zarautz - Arrasate36-2

Infantilak: Groseko - Arrasate16-24

FUTBOLA

Preferentea: Pasaia - Mondra1-1

Ohor. Gazteak: Mondra - Dunboa3-3

Gazteak: Allerru - Arrasate1-2

Ohor. Kadeteak: Arrasate - Hernani2-5

Emakumeak: Agurain - Mondra0-1

Infantilak: Arrasate - Eibartarrak6-3

SASKIBALOA

Gaur jokatuko du Mugarri Alkesak, 20:00etan

Zubia dela-eta, Mugarri Alkesa saskibaloia taldeak gaur jokatuko du, 20:00etan, Iturripen. Zurututzaren mutilek Erro y Eugi taldearen kontra neurtuko dituzte indarrak. Sailkapenari begiratuta, bistan da kontrario gogorra izango dela, nafarrak laugarren postuan daudelako, hirugarrenarekin eta bigarrenarekin berdinduta. Albiste ona da Oñatiko entrenatzaileak jokalaria guztiak izango dituela eskura; horrenbestez, Mugarri Alkesak behar den moduan egin ahal izango dio aurre gaur ilunkean Erro y Eugi taldeari.

ESKUBALOA ETA PILOTA

Zubia dela-eta, eskubaloian eta pilotan deskantsua

Bi kirol horietan deskantsua hartuko dute asteburuan, eta zubiaz gozatu ahal izango dute. Eskubaloian, joan den astean norgehiagoka txukuna egin bazuten ere, Andoni Arandoren mutilek galdu egin zuten Bidasoaren kontra; ondo etorriko zaie atsedend hartzea.

Pilotan, Aitzol Lazkanok ere atsedend hartuko du asteburuan, eta hurrengoan jokatuko du Uarkapen Gipuzkoako Txapelketako azken partidua. Norgehiagoka hori irabazten badu, Arrasateko pilotaria Euskadiko Txapelketa jokatzeke sailkatuko da.

ERRUGBIA

Liderraren kontra jokatuko du Arrasatek, bihar

Bihar (16:00etan, Garagartzan) Arrasate Errugbi Taldeak Gernikaren kontra jokatuko du. Hala, zubia izanda ere arrasatearrek ez dute deskantsurik hartuko, eta kategoriako talde indartsuenaren kontra jokatuko dute, gainera. Taldeko kide *Kako*-rekin izan gara: "Gernika oso talde sendoa da, eta guk puntu bakarra dauka. Hala ere, ni oso pozik nago taldea erakusten dabilen jarrearekin, gauden mailan egoteko maila polita erakusten gabiltzalako. Kategoriari neurria hartu behar diogu, eta partiduak irabazteko azken bultzadaxoa behar dugu".



PROFESIONAL
liberalak

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asejim.com

EMUN KOOP. E.

Uriburu 9, behea. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuartera, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behea
Tel.: 943 79 67 78 / Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

BITART

Larraitz Ugarte Maider Morras

Nafarroa etorbidea 23
Arrasate
Tel.: 943 71 25 22 / 943 71 25 23
Poltsikokoa: 659 59 71 21

ELKARRIZKETA

ENEKO BARBERENA/IDAZLEA

“Aurreiritzi larregi daude poesian, badirudi edozeinek ezin duela idatzi”

IKER BARANDIARAN

Eneko Barberenak *Lurrinak ez du oraindik kristalik estali* liburua argitaratu du. Oraingoan poesia landu du, eta Gaztesarea taldearen laguntzarekin autoekoizpena egin du. Durangoko Azokan egongo da salgai.

Zure aurreko liburua *Igogai-luak, Dow Jones eta beste droga batzuk* izan zen. Zer-nolako harrera izan zuen? Espero zenuen?

Ez nuen inondik inora halako harrerarik espero. Uste nuen lagunartean harrera izango zuela eta haiek bakarrik irakurriko zutela. Harritura utzi ninduen komunikabide batzuek eman zioten oihartzuna. Hala ere, liburu hori idaztea eta kaleratzea izugarriko esperientzia izan zen. Pribilegiatua naiz, hain gaztea izanda liburu bat argitaratzeko aukera izan nuelako. Hori Apokaliftoin elkarteari zor diot.

Orain bat-batean poesiarekin zator. Noiz eta zelan bururatu zitzaizun ildo horri eustea?

Ez dakit. Ez zen deliberatua izan. Gorputzak momentu desberdinetan beste gauza batzuk egitea eta idaztea eskatzen du. Konturatu barik poesia idazten hasi nintzen eta berehala bildumatxo bat eginda neukan. Orduan erabaki nuen poesia idazten jarraitzea.

Pako Aristiren *Libreta horiko poemak* liburuak izan zuen eraginik?

Baietz uste dut. Liburu horrek aurreiritzi batzuk apurtu zizkidan. Liburu horretan ez dira poesiaren ohiko gai abstraktuak lantzen, eta hizkuntza ere oso zuzena da, ez ditu metafora nahasiak erabiltzen.

Poesia idazteko, heldutasun puntu batera heldu zarela esan dezakegu?

Heldutasuna? Ez dut uste poesiak heldutasuna dakarrenik. Hala ere, ni lehengoa naiz eta beste estilo batzuetan ere jarraitzen idazten dut. Adibidez, oraintxe *Gara*-rako ipuin erotiko bat idazten nabil.

Hori galdetu behar nizan. Batez ere, *Putz* aldizkarian idazten zenuen. Baduzu horren falta? Eta gaur egun idazten duzu beste nonbait?

Bai, *Putz* aldizkariaren hutsunea igartzen dut, bai idazle moduan eta baita irakurle moduan ere. Aldizkari horrek ematen zuen aukera paregabea umorea eta sexua era dibertigarrian lantzeko, eta gaur egun ez dago horrelakorik.

Gaur egun *Gara* egunkarian



“Gorputzak momentu zehatzetan beste gauza batzuk egitea eta idaztea eskatzen du”

ipuin erotikoak idazten ditut, *Iru-txulo* aldizkarian iritzi artikulak eta *Abian* ikasleen aldizkarian, bestelako idatziak argitaratzen ditut.

Liburuarekin jarraituta, prozesu luzea izan da poesia multzo hori idaztea?

2003ko udan hasi nintzen, eta 2004ko udara arte horretan ibili naiz. 50 bat poesiak osatzen dute liburua. Egia esanda, idatzi ostean ez dut askorik gainbegiratu. Alde batetik, ez daukat pazientziarik; eta bestetik, ez dut oso gustuko idatziak berrikusten ibiltzea, batzuetan larregi aldatzeko arriskua dagoelako. Gurago dut dagoenetan utzi, larregi aldatzea baino gehiago.

Eta zer-nolako emaitza lor-

“Nahiz eta gero eta lurrin gehiago bota gure begietara, oraindik ikusteko gauza gara”

tu duzu?

Dagoeneko irakurri duten lagunek esan didate asko *biluztu* naizela, eta nire izaera asko erakutsi dudala. Nik ez dut uste horrenbesterako denik. Kontatzen ditudan gauza gehienak nik ikusitakoak dira edo nire ingurukoek bizi izandakoak eta kontatutakoak. Gertuko gauzak, batez ere.

Erraz moldatu zara genero horretara, poesiara?

Ez, egia esanda, oraindik ez naiz erraz moldatu. Oraindik tabu asko daude poesiaren gainean. Badirudi oso gauza berezia dela, edozeinek ezin duela idatzi, horretarako jaingo batek ukitu behar zaituela... Aurreiritzi horiez gain, nire generoaren gaineko ezja-

kintásunak hainbat zalantza sorrarazi dizkit. Hala ere, aurreira egin dut, eta hor dago emaitza. Hobeia edo txarragoa izan, irakurleek esan beharko dute. Aurreiritzi horiek apurtzen dezentelagundu dit Pako Aristiren poesia liburu horrek.

Aurreko liburuari izenburua *Xabier Montoiarengan eta beste idazle batzuegan oinarrituta jarri zenion. Nondik dator *Lurrinak ez du oraindik kristalik estali*? Eta horrekin zer esan gura duzu?*

Esanahi asko izan ditzake. Bakoitzak modu baten uler dezake. Horietako bat, orain buruan daukadana, honako hau da, baina agian bihar beste bat emango dizut: nahiz eta gero eta lurrin gehiago bota gure begietara, oraindik ikusteko gauza gara.

Esaldi hori Ruper Ordorikaren *Nire furgoi beltza* kantutik hartu dut. Sasoi baten Ruper asko entzuten nuen, eta aproposa iruditu zitzaidan izenburu hori, esanahi asko har ditzakeelako.

Zaila izan da liburua argitaratzeko laguntza aurkitzea?

Idatzi nuenean banekien argitaratu gura nuela, baina egia esanda, argitaletxeen arloa ez dut oso gustuko, eta nire burua eta liburuak promozionatzea ez dut bate-re gustuko. Gezurra dirudi, liburuak kaleratu ditudalako, baina oso lotsatia naiz horretarako.

Lan hori argitaletxe batera bidali nuen, baina ez nuen inolako erantzunik jaso eta erantzunik ezak amorratu egin ninduen. Orduan, Gaztesarea taldearekin berba egitea erabaki nuen eta haiek oso ondo hartu ninduten. Gaztesarea Internet bidezko komunikazio talde bat da, baina tarteka bestelako produktuak kaleratzen dituzte. Horregatik, nire lanarekin *Kalaportu* saila estreinatuko dugu. Azken finean, autoekoizpen bat da, eta gainera nik egile eskubideei uko egingen diet lana edozeinek eskura dezan.

Zer formatutan kaleratuko duzu? Eta non egongo da eskuragarri?

Ohiko liburu moduan. Dena dela, liburu txikia izango da, formatu kuttunekoa. Apokaliftoinek kaleratu zuen *Euriaren mailukadak* lanaren antzekoa. Durangoko Azokan egongo da salgai. Horrez gain, liburu denda batzuetan eta tabernetan erosi ahal izango da. Baita ere Gaztesarearen bitartez, jakina.

Liburuaren aurkezpena egiteko asmorik baduzu?

Bai, gaur (egubakoitza) Donostian komunikabideen aurrean egingo dut aurkezpena. Eta Arrasaten ere zerbait egin gura dut.

KULTURAPILULAK

Aratusteak 2005 iragartzeko lehiaketa abian

Udaleko Kultura Sailak Aratusteak 2005 iragarriko duen horma-irudia eta esku-orriaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatuta du.

Lehiaketa horretan Arrasaten bizi edo errodututako edozein lagunek esku hartu ahal izango du. Irudien neurriak 50 x 70 zentimetrokoak izango dira. Formatuak nahitaez bertikala izan beharko du. Disketean ere aurkeztu ahal izango da irudia, DIN-A3 tamainako paperean inprimatuta.

Teknika librea izango da, eta irudiek derrigorrez honako testua izan beharko dute: *2005 Haratuzteak Arrasate*. Irabazleak 360 euroko saria jasoko du (kopuru horri PFEZ-aren atxikipena ezarriko zaio).

Antolakuntzak, hau da, Udaleko Kultura Sailak egoki ikusten badu, aurkeztutako irudi guztiekin erakusketak egingo du.

Egilearen nortasuna azaldu barik eta atzealdean lelo bat duela aurkeztu beharko dituzte irudiak. Horrekin batera, gutun-azal itxi baten lelo bera eta egilearen datuak idatzi beharko dira.

Lanak 2005eko urtarrilaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira, udaletxeko Kultura Sailean. Saritzen duten lana Udalaren esku geldituko da. Gainontzeko lanak erakusketaren azkeneko egunetik 30 eguneko epean jaso ahal izango dira.

Bihar, zapatua, 3.60 Aretoaren inaugurazioa

San Andresko Bertize disko-terka zenak jabe eta izen berriak ditu. 3.60 Aretoa izena jarri diote, eta bihar, zapatua, inauguratuko dute.

Arduradunek esan diguten bezala, asmoa da disko-terka izateaz gain egubakoitzetan giro lasaigoa lortzea eta tarteka kontzertuak egitea. Hainbat musika estilo uztartu gura dituztela aditzera eman dute.

Inaugurazio ekitaldian musika kontzertuak eta DJak egongo dira. 22:00etan, Ondarroako UEK taldeak *Ganbaratik* lana aurkeztuko du. Horren ostean, Eskoriatzako Klineks taldearen doinu gogorak entzun ahal izango dira, eta kontzertuekin bukatzeko, hainbat herritako musikariek osatutako Fjord taldeak esku hartuko du.

DJ Nko, DJ Loren eta DJ Gonzalo (electronische) izango dira jai goizaldera arte luzatzeko arduradunak. Sarrera 6 euro izango da.

Etxeko konponketak

Elektrizitatea

 **Aranzabal** Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak
Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA

Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea

Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 11 35

Eraikuntzak

Arrasate eraikuntzak SL

Meatzerreka auzoa 30

Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26

Jovi

10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



Izcue Irurzun

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



ZUTARRI s.l.

Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.

Tel: 943 79 67 78 Faxa: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora



Lehiaketa horietan punta-puntako akordeoi jotzaileek esku hartzen dute.

Nazioarteko eta Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketak, abian, gaurtik aurrera

IKER BARANDIARAN

Gaur, egubakoitza, hasiko dira XII. Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa eta Gipuzkoako XXV. Akordeoi Lehiaketa. Bestelako emanaldiak ere izango dira. Hori guztia Hauspoz elkarteak antolatuta.

Aurten ere abenduko lehenengo astean Arrasate akordeoiaren nazioarteko hiriburu bihurtuko da. Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara arte XII. Nazioarteko Lehiaketa eta Gipuzkoako XXV. Lehiaketa egingo dituzte Amaia Udal Antzokian eta Arizmendi Ikastolan. Horiez gain, iazko nazioarteko irabazle Kirill Chtybienek hainbat kontzertu egingo ditu Arrasateko San Juan Bataiatzailearen elizan (bihar, zapatua, 20:00etan) eta Aretxabaletako elizan (gaur, egubakoitza, 20:00etan). Hauspoz Euskal Herriko Akordeoilarien Elkarteak Akordeoi Varieteen Txapelketa ere prestatu du.

BESTELAKO EMANALDIK

Urtero moduan, txapelketa eta lehiaketetatik kanpo ere hainbat ikuskizun egingo dituzte: Joxan Goikoetxeak *Urkiako aztiak* kontzertua egingo du gaur Mondragon hotelean, 22:00etan; eta domekan, Arraskate Band taldeak ikus-

kizuna egingo du Kajoi tabernan, 23:30ean.

Bestalde, Nazioarteko eta Gipuzkoako lehiaketen sari banaketa domekan egingo dute Amaia Udal Antzokian. Ekitaldi hori 20:00etan izango da.

Nazioarteko lehiaketan 19 lagunek esku hartuko dute. Horien artean, Serbiako, Ukrainako, Kroaziako, Finlandiako, Alemaniako, Poloniako, Errusiako, Txinako eta Euskal Herriko ordezkariak izango dira. David Gordo gasteiztarra izango da

azken hori. Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketan hainbat sari eskuratu ditu, eta baita Espainiako Estatuan ere. Epaimahaia nazioarteko zenbait adituk osatuko dute—horien artean, Euskal Herriko Karlos Iturralde—, eta honako sariak banatuko dituzte: 3.600 euro eta bira bat lehenari; 1.800 euro bigarrenari, eta 700 euro hirugarrenari.

GIPUZKOAKOAREKIN HASI ZIREN

Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketa antolatzen hasi zen aspaldi. Izan ere, dagoeneko hogeita bost antolatu dituzte; horietatik gehienak Arrasaten. Urte batzuk geroago, Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa antolatzea erabaki zuten, eta hori ere Arrasaten egiten hasi ziren. Antolatzailerik diote Arrasaten halako lehiaketak egiteko baldintzak betetzen direla, eta oso gustura daude herrian ekitaldi horiek duten harrerarekin.

Gipuzkoako Lehiaketan 18 lagunek esku hartuko dute. Hiru sail izango dira: 13 urte bitartekoak, 14 eta 17 urte artekoak, eta 18 urtetik gorakoak. Euskal Herrikoak, Alacantekoak, Errioxakoak eta Galiziakoak izango dira, besteak beste. Epaimahaia nazioarteko hainbat lagunek osatuko dute.

Nazioarteko lehiaketan Ekialdeko Europako eta Asiako 19 lagun lehiatuko dira

Espainiako Estatuko 18 gaztek esku hartuko dute Gipuzkoako Lehiaketan

KULTURAPILULAK

Xabierko Frantzisko Euskararen Eguna ospatuko dute Arizmendi Ikastolan

Abenduaren 3an, Xabierko Frantzisko Eguna izanda, San Frantzisko Xabier Ikastola zenak haren eguna ospatu ohi zuen. Eta ospakizun horrekin aurrera egin du Arizmendi Ikastolak sortu zenetik. Are gehiago, data horretan Euskararen Eguna ere ospatzen dela baliatuta, Arizmendi Ikastolak egun hori Xabierko Frantzisko Euskararen Eguna moduan bataiatu du. Egundorretan euskararen aldeko jolas eta jarduerak egingo dituzte Arizmendiren gune guztietan; Arrasaten barne, jakina. Ekitaldi horietako batzuek izaera formal eta akademikoa izango dute. Beste batzuek, berriz, ludikoagoa.

Arizmendi Ikastolak, Euskaraz Bizi proiektuaren bitartez, euskararen normalizazioan sakontzeko hainbat egitasmo lotu ditu egun horrekin. Egundorretarako lelo bat asmatzeko lehiaketa egin dute ikasleen artean. Honako hau aukeratu dute *Euskara eta ni bagara lagun bi. Zergatik ez beste bi?* Lelo horren egilea Olaia Martin Ayucar da, San Viator guneko 15 urteko ikaslea.

Horrez gain, gaur, egubakoitza, Santa Teresa guneko irakasle Amaia Pagaldaik idatzitako bertsoa abestuko dute. Bertsoak San Frantzisko eguna eta euskara lotzen ditu.

Hainbat artistaren lanekin erakusketa, Iturriotz kalean

I.B.

Atzo, eguna, inauguratu zuten erakusketa bat Iturriotz kalean. Urtarril erdialdera arte egongo da zabalik, eta besteak beste, Zumeta, Dora Salazar, Koldobika Jauregi eta Goenagaren lanak ipini dituzte.

Joan den urtean, Iturriotz kaleko 35. zenbakian dagoen etxebaten, artista ezagunen lanekin osatutako erakusketa ipini zuten. Erakusketaren arduradunek urtero herriz aldatzea pentsatuta zuten, baina iaz erakusketak oso harrera ona izan zuten, eta kokapena bere horretan uztea erabaki dute.

60 BAT LAN BATU DITUZTE


Uxo Zumeta da erakusketaren arduraduna. Artelan asko izaten ditu esku artean, eta halako era-

kusketak egiteko aukera izaten du. Artistengana jo zuten, eta haiek hainbat lan utzi dizkiote. 60 bat lan batu ditu.

Lan gehienak margolanak dira. Izan ere, eskulturak jarri dituen bakarra Mari Jose Rekalde da. Eta eskulturagile moduan ezaguna den Dora Salazarrek eskulturak beharrez, aurten margolanak ekarri ditu.

Margolan gehienak abstraktuak dira, baina badira salbuespenak: esaterako, Goenagak paisaiak egin ditu. Horrez gain, Barbara Stammelek instalazio txikiak egin ditu, eta Keixetak paperez egindako collageak, besteak beste.

Erakusketa zabalik dago atzotik, eguna, urtarrilaren 15era arte, lanegunetan eta zapatuetan. Honako ordutegia dauka: 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:30era.



Lan bitxiak daude erakusgai eta salgai erakusketa horretan.

IKER BARANDIARAN

BOTE PRONTUEN

Maider Morras

BITART ABOKATUTZA

XABIER URTZELAI

Larraitz Ugartek eta Maider Morrased bitart abokatutza eta bittartekaritza bulegue ipiñi daue. Beste gauza batzuen artien Zuzenbidie, Kriminologixie, Soziologia Juridikue eta Bittartekaritza ikesi daue. Estudixo faltagaittik ez da izengo, ederto preparaute dauz.

Larraitzek eta bixok batera ikesi dozue.

Bai. Zuzenbidie batera egin geuen Donostian, eta horrez gain Larraitzek Soziologia Juridikue eta Kriminologixie egin euen eta neuk Bittartekaritza. Eta, oin Bittartekaritza Familiarran gainen masterra egitten gabitz.

Argi zeuketzen Bitart moduko abokatutza eta bittartekaritza bulegue zabaldu biher zeuela?

Bai. Oin dala bi urte batera ibilli gitzen lanien. Gero, bakotxak bere bidie jarraitu euen, baiñe argi geuken gu abogauek gitzela eta hori zala geure lana. Juen zan urtien ibilli gitzen pentsetan bulegue zabaldu biher geuela, eta aurtin egin dou hori.

Zelan lelengo bi hillabete honeittan?

Oso ondo, gustora. Denpora laburrien bezeruek euki dou-eta.

Ze zerbitzu ofreziduten dozue Bitart-en?

Geuk ofreziduten doune da abokatutza zerbitzue, asesorixa juridikue eta bittartekaritza zerbitzue.

Ze sartzen da bittartekaritza zerbitzuen?

Zerbitzu hori da problemak konponketako bide estrajudiziala. Hirugarren pertsona bat egoten da, inpartziala dana, eta harek erueten dau prozesue alderdi bixek akordixue egitteko. Baiñe horrek ez dauko zerikusirik abogau baten lanakin; abogauek alde bateko interesak defendiduten dauelako.

Zelako kasuek izeten die?

Bikotien artekuek, bizilagunen artekuek...

Holako kontuekin herrixen



“Bittartekarixe inpartziala da, baiñe abogaue alde bateko interesak defendiduteko dau”

lan egittie ez da errexa izengo.

Ez, baiñe horretarako daukot Larraitz. (Barre) Bera Oñatikue da, eta hango kontuek erueten dittut neuk, eta hamenguek berak. Azkenien, ezagunekin lan egittiek alde onak dauko, baiñe baitte txarrak be.

Gaiñera, beti esan izen da erdixen sartzen danak txarto bukaketan daudela.

Bai, hori be egixe da. Baiñe jentiek argi ikusten dau zein dan gure lana, eta nahiz eta euren interesak defendidu, ez die harrika ibiltten.

Zelako klientiek euki dozue?

Egixe da oin arteko kliente asko ezagunak izen diela, baiñe hasieran pentsetan geuen kasu antze-

“Pozgarrixe da bittartekari moduen ibilli eta akordixue egin dauela ikustie”

rakuek eukiko geuela, eta ez da holan izen, danetik egin dou.

Abogau moduen zabitzenien, defendiduten zabitzena lagune bada kasu pertsonalaue da?

Ez, iguel-iguel egitten dou lan. Galdu ezkeru ez dot lo ondo egitten, baiñe ez lagune dalako.

Bittartekaritza lana ala abokatutza lana hobeto?

Egixe esateko, pozgarrixaue da bittartekari moduen ibilli eta akordixue egin dauela ikustie.

Zeure laneko gauza txarre-na?

Dedikaziño haundixe eskaketan dauela.

Eta onena?

Gustau egitten jatela.

NIRE BIDAIA HURA / Iraitz Agirre

Eskandinaviara / 2004ko abuztuan

Iraitzek kontatzeko moduko bidaia bat baino gehiago daukanez, aukeratzeko eskatu diogu. Abuztuan familiakoekin batera Eskandinavian barrena egin-dako bidaia kontatu digu: “Fiordoz inguratuta dagoen Norvegiaren iparraldean hasi genuen bidaia, Alta izeneko herrian. Ipar Lurmuturreraino joan ginen gauerdiko eguzkia ikusteko”.

Eta baita lortu ere: “Oso ikusgarria da ordu pare batez eguzkia itsasoaren atzealdean nola ezkututzen den eta berriro ere egunsentia ikustea. Iparaldean izan ginen egunetan inoiz ere ez zuen ilundu, bazi-rudien hala egingo zuela, baina eguzkia irteten zen berriro ere. Nahiz eta eguzkia justu-justu ezkutatu, kalean oso jende gutxi ibiltzen zen”. Finmark edo Laponia izeneko eskualdean, Saamien parlamentua bisitatu zuten: “Jatorriz, Europako iparraldeko nomadak dira, eta lau estatutan banatuta dagoen nazioa osatzen dute. Oso biztanle gutxi dituen eskualdea da, baina harrituta geratu nintzen euren hizkuntzaren aniztasunarekin. Saami hizkuntza 20.000 lagunek egiten dute berba, eta hizkuntza horrek zortzi dialekto ditu”. Ez pentsa, gainera, dialekto horiek antzekotasunik daukatenik. Itxuraz, elkarren artean ez dute elkar ulertzen.

Handik Oslorako bidaia egin zuten, han auto-karabana hartu eta Norvegiako mendebaleko kosta ezagutzeko asmoarekin: “Egun dezente behar dira mendebala ezagutzeko, kostalde hori ehunka fiordok osatzen dute-eta. Antzinako glaziarrekin batera sortu ziren fiordoak, eta glaziarrek urtzerakoan, urak bete zuten euren lekua. Estuak badira ere, fiordo batzuen itsaslabar edo akantilatuek mila metroko garaiera daukate”.



“Ordu pare batez eguzkia ezkutatu eta berriro irteten zen”

“Saamiak zortzi dialekto ditu; elkarren artean erabat ezberdinak”

XABIER URTZELAI



Argazkian, Iraitz eta Manex.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZAHARRENETXETIK



IKER BARANDIARAN

Lanak bukatzean, egungo sarrera (irudian) kendu eta Garibaitik sartuko dira.

Iturbide egoitza eraldatzeko lan erraldoiak 2005aren bukaeran hasi gura dituzte

IKER BARANDIARAN

Iturbide egoitza eraldatzeko aurreproiektua idatzita dago. Javier Egaña arkitektoak egin du, eta Udala eta Foru Aldundia ibili dira horren gainean eztabaidatzen. Dagoeneko, hainbat adostasun lortu dituzte eta asmoa da 2005aren bukaera aldera hasia eraldatze lanak. 24 hilabete iraungo dute lanek.

Lan horiek izango duten ezaguerri nabarmenena da, orain arteko hiru solairuez gain, egoitzak gaur egun Abaroa elkarte dagoen solairua -lehenengoa- ere hartuko duela. Horretarako, Abaroa elkarte lekuz aldatu beharko da, baina Udala eta elkarte oraindik ez dira ados jarri.

ALDUNDIAK ETA UDALAK FINANTZATU

Iturbide egoitzan bizi diren lagun gehienak ez dira gauza euren kabuz baliatzeko. Horregatik, Iturbide egoitza Foru Aldundia-

ren eskumena da, eta Aldundiak lan horien oso portzentaje handia finantzatu beharko du. Hala dago adostuta. Aurrekontu osoa zehaztear dagoen arren, hiru milioi euro baino handiagoa izango da.

ZAHARKITUTAKO SISTEMAK ALDATU

Egoitzaren eraldaketa hori faseka egingo dute. Azkeneko solairutik hasiko dira eta hortik behera egingo dute. Besteak beste, gela guztietako komunak handitu egin beharko dituzte. Horre-

tarako, pasilloak handitu beharko dituzte. Lan horiek megafonia sistema, suteen aurkakoa eta argindar instalazioa aldatzeko baliatuko dute. Azken finean, horiek guztiak Iturbide egin zeneko garaioak dira, eta zaharkituta daude.

Gaur egungo erizaindegia handiagoa egingo dute, eta hemendik aurrera bi gelak osatuko dute: botika-kutxak eta erizaindegia, hain zuzen ere.

Horrez gain, jangelak handitu egingo dituzte, eta zortzi gela

gehiago ipiniko dituzte. Gaur egun dauden karga-jasogailuak eta bi igogailuez gain, beste karga-jasogailu bat ipiniko dute, barruko zerbitzutarako erabiltzeko.

SARRERA ALDATU EGINGO DUTE

Askotan esan ohi dugu Iturbide egoitzak duen sarrera nagusia ez dela egokia, zailtasunak dituztenek ezin dutelako erabili. Horregatik, lan horiek bukatzen dituztenetarako, sarrera hori itxi eta egungo Abaroako sarrera -Garibaikoa- erabiliko dute.

Beheko solairuan, bulegoak, balio askotariko aretoa eta fisioterapiarako gela bat ipiniko dituzte. Balio askotariko aretoa erabiliko dute senideekin batzarrak egiteko, musika eta antzerki ikuskizunak egiteko, eta abar. Horri esker, beste solairuetan dauden aretoak egoiliarrek lasai eta patxadan egoteko erabiliko dituzte.

Lanak 2005eko bukaeran hasiko dira eta bi urte iraungo dutela zehaztu dute

Lanak irauten duten bitartean, egoiliarrek ez dute lekuz aldatu beharrik izango

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711767

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Toilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

LABUR

Parisa, Toki Argi erretiratuen elkartearekin

Santa Marinako Toki Argi erretiratuen elkarteak Parisa bidaiara antolatuko du datorren urterako. Zortzi egunean Frantziako Estatuko hiriburua goitik behera ikusiko dute. Gaur, egubakoitza, zabalduko dute izenematea. Toki Argi erretiratuek lehentasuna izango dute.

Berbaldia, dantzaldia eta beste, Toki Argin

Hilaren 13an, Toki Argi elkarte bihotzeko gaitzak izango dituzte berba. 17:00etan izango da. Horren ostean, txokolata-jana egingo dute eta Quintanilla musikariaren laguntzarekin dantzaldia egingo dute. Azken bi ekitaldi horiek Santa Luzia eguna ospatzeko egingo dituzte.

Uribarrikoak, Bilbora, Santo Tomas egunean

Uribarri erretiratuen elkarteak, urtero moduan, Bilbora txangoa egingo du hilaren 21ean, Santo Tomas egunean. Goizean azoka ikusiko dute, eta horren ostean, Artxandan bazkalduko dute. Interesatuak bulegora jo beharko dute izena ematera. Zozketa hilaren 17an egingo dute, 17:00etan.

Dantza ikastaroa eta berbaldia Uribarri elkarte

Hilaren 15ean, antsietatearen eta beldurren gaineko berbaldia egingo dute Uribarri elkarteak, 17:00etan. Egiten dabilzan lanak direla eta, interesatuak Usaetxe plazatik sartu beharko dute. Bestalde, urtarrilean dantza ikastaroa egin gura dute, eta horretarako interesatuak izena eman beharko dute.

ESKORIATZA

Tfno 714345



Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

EZETZASMATU



UBANE MADERA

Non dago argazkian ikusten duzuen kale-argia?
Arrastoa: Arrasateko eraikin adierazgarrietako bat du ondoan.

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Coca-Cola 33 cl-ko lata
12X11ko packa

4,24€ 705 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IRATXE YARZArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Iratxe!

Galderen erantzun zuzena:

Iturriotz kalean

Jose Letona plaza.

ARRASATEKO HISTORIA

Arrasateko baserri auzoetako bideak (V)

ARRASATEKO BASERRI... / G. ARZELUS

Arrasateko auzoetako bideen gaineko izendapena dugu beste aste batez berbagai. Garagartzakoekin bukatu eta herriko bestelako auzoetakoak aztertuko ditugu:

Arkotxa bide (Garagartza): Arkotxa, Elizaste zeritzan etxearen aurretik elizara zihoan bideari eta inguruari deitzen zaio. Elizaste etxea botata dago, baina zutik zenean batez ere jabearen izenez (Alejo) ezagutzen zen.

Arlabango bidea (Garagartza): Garagartzako Madarixa baserritik Besaiderantz zuzenean jarraitzen duen bideak Arlaban mendi ingurua igarotzen du. Hori dela eta, Arlaban bidea izena hartu du. Oso zaharra den bide horren albotik errekaxo bat doa, baina euri asko egiten duenean errekak bidea bereganatzen du. Horren adierazgarri Arlabango Zubia izenarekin ezagutzen den urzuloa dugu.

Bidearen alboan pare bat karroi-zulo ikus daitezke, hots, burdibidea izan zenaren adierazgarri. Karobiak beti bide ertzetan egiten ziren, karearria garraiatzeko, eta egosi ondoren lortzen zuten kare guztia, burdian, baserri eta auzoetara eramateko. Arlabandik ger-



Arrixan bidea Santana baserritik igaro eta Eguzkitzaren etxe azpiko zelaietatik pasatu ondoren, Arrixanara iristen zen.

tu Lizuetako eta Bostiturrietako kobak daude. Azken hori ezkailu toki aparta omen zen.

Armaola Bide (Gesalibar, 1562): gaur egun, toponimoa gelditzen bada ere, ez dago izen hori duen baserririk.

Garai batean, Armaola base-

*Karobiak beti
bide ertzetan
egiten ziren,
karearria
garraiatzeko*

rritik Lurgorri aldera zeraman bideari Armaola izena ematen zitzaion. Arrasateko eleiz-batzarrean Santa Agedan zituen lurretan bide eta baserri hura zabaldu eta eraiki zuen.

Bestalde, baliteke Gesalibarreko Lurgorriko meatzetatik ate-

ratzen zituzten mineralak Armaola bidetik auzoraino jaitsi izana, baserri hura Lurgorriko eremuan baitzegoen.

Arrixan bide (Uribarri, 1779, 1810): Udalako errepidearen ertzean dauden baserrietariko bat da. Egundo Arrixanera iristeko bide hori erabiltzen den arren, lehenago (errepiderik ez zutenez) beste aukera batzuk zituzten. Agian garrantzitsuenak, Eguzkitza baserriaren lurretatik pasatzen zen bidea izan zitekeen, hots, Arrixan bidea (1810). Bide hura, Santana baserritik igaro eta Eguzkitzaren etxe azpiko zelaietatik pasatu ondoren, Arrixanera iristen zen. Beste bide batek (errekaxoa jarraituz) zuzenean Goiru etxearekin lotzen omen zuen.

Arruena bide (Musakola, 1475, 1793): Arruena baserria Kaskonategi behekoa izenez ere ezagutzen zen. Etxe hura, Maxi Eroski dagoen lekuan zegoen.

Bestalde, Arruena eta Garratz baserriak zorbide batek komunikatzen zituen; hala ere, erakuntza berriak zirela eta bide hura galdu egin zen. Beste bide batek, berriz, Bergararik zetorren erregebidearekin lotzen zuen. Arruenatik iristen zen bide zaharretariko bat (1475) Aranguren baserriraino zeraman.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko abenduaren 3a / 132. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Sententziak dio Albinako hesia zenbait puntutan zabaldu egin beharko dutela

UBANE MADERA

Albinako itxitura edo hesia dela-eta, Aramaioko Udalak epaiketa izan du, lurjabe batek ezarritako salaketaren ondorioz. Orain, sententzia aterata da. Eta epaileak adierazi du Albinako lau puntutan kendu egin beharko dutela orain bi urte ipinitako hesia.

Animaliek eraginda, Albinan 12-13 istripu izaten ziren urtero. Gauzak horrela, Udalak erabaki zuen beharrezkoa zela zerbait egitea. Eta batzarrak egin zituen ganaduzaleekin, errepideen arduradunekin eta lurjabeekin. Mertxe Mondragon alkateak kontatu digu guztien artean erabaki zutela egokiena zela hesi bat ipintzea, zaldiak-eta errepidera aterata ez zitezen. Gaineratu digu lurjabe batek ez zuela hitzarmen hori sinatu. Baina Udalak ez ziola garrantzirik eman eta hesia ipini zutela, 2002aren hasieran. Alkateak esan digu harrezkero ez dela izan animaliek eragindako istripu gehiago.

SALAKETA ETA SENTENTZIA

Baina horrekin batera kontatu digu 2002an bertan hesi horren kon-



Hesi barik, larreetan dabilen ganadua —batez ere zaldiak— errepidera ateratzen zen eta istripuak eragin.

trako salaketa ipini zuela hitzarmena sinatu ez zuen lurjabeak. Kontua zera da: hesi guztia jabetza publikoan ipini zuela Udalak, lau puntutan izan ezik. Puntu horiek mendi-bideak dira (Zube-

ro eta Etxanbideta, esaterako). Hala, norbaitek bide horiek erabili gura izanez gero, automobila derrigor errepide bazterrean utzi beharra zuen. Horrek duen arriskua kontuan hartuta, Udalak era-

baki zuen lau puntu horietan hesia metro batzuk barrurago ipintzea, jabetza publikotik kanpo. Baina betiere kontuan hartuta bide horiek jabetza publikokoak balira moduan kontsideratu izan dituz-

tela. Are gehiago, alkateak esan digu orain arte Udala arduratu izan dela bide horiek zaintzeaz. Edoze-lan ere, Udalak ez du udalerriko bide guztien inbentariarik. Horrenbestez, legearen aurrean, gune pribatuak dira aipatutako bideak.

Hain zuzen ere, horrexegatik ipini zioten salaketa Aramaioko Udalari: hesia lurzoru pribatuan ipintzeagatik. Salatzaileak eskatu zuen hesi guztia kentzea. Eta epaileak erabaki du hesi guztia ezetz, baina aipatutako lau puntuotakoa kendu egin beharko dutela. Erabakia behin betikoa da, hortaz, ezin dute errekurritu.

Gauzak horrela, Udalak lurjabearekin berba egin zuen berriro. Baina ez zuten adostasunik lortu. Hala, erabaki dute hesia kendu beharrean lekuz aldatuko dutela. Alkateak azaldu digu hesia kenduz gero, arriskua berriro sortzeaz gain, lehen baino larriagoa izango zela, behin animaliak errepidera ateraz gero, larrera bueltatzeko zailtasun handiagoak izango zituztelako. Hala, bada, hesia jabetza publikoari dagokion lurzoru ipintzea erabaki dute oraingoz; eta lekua behar bezala seinalez-tatzea, automobilendako.



Aparejadore berria lanean da

Ekin dio lanari udal aparejadore berriak. Haritz Maillou Elortza arrasatearrak bete du Xabier Berridiren postua. Eta hasiera batean, sei hilabeterako izango da Aramaion, harik eta lanpostua lehiaketa publikora aterata arte. Bien bitartean, Aramaioko udal-txean jardungo du lanean, astelehenetik eguaztenera, 09:00etatik 14:00ak arte.

Haritz Maillouk kontatu digu Zamoran ibili dela orain arte lanean. Eta familiak Aramaioko eskaintzaren berri eman zionean, hona etortzea erabaki zuela. /U.M.

LABUR

Udalaren proiektua onartu egin du Jaurlaritzako Hezkuntza Ordezkaritzak

San Martin Eskolan 0-2 urteko umeendako zerbitzua ipintzeko Udalak proiektua aurkeztu zion Hezkuntza Ordezkaritzari. Proiektu horren arabera, Aita Gabiré kaleko lokal bat egokituko lukete umetxoendako eraikina lortzeko. Orain, alkateak jakinarazi digu Hezkuntza Ordezkaritzak onespina eman diola proiektuari. Horrenbestez, orain eskolako ordezkariekin elkartuko dira, guztien artean adostasuna lortzeko asmoarekin. Izan ere, eskolako beste proiektu bat egin gura dute: eskolaren ondoan eraikin berria egin, han eskaintzeko umetxoendako zerbitzua.

Datorren asteko zubiaren eraginez, pediatria zerbitzua Arrasaten izango da

Datorren astean hiru jaiegun daudela-eta, Udalak zera jakinarazi digu: martitzenean, abenduaren 7an, pediatria zerbitzua Aramaion barik, Arrasaten emango dutela. Zerbitzu horren ordutegia ohikoa izango da.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martín Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kirolegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoaren duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

ZINEMA SAIO BIKOITZA

Asteburu luzea dela-eta, zinema saio bikoitza antolatu dute oraingo honetan. Hala, abenduaren 5ean, domeka, izango da aurreneko saioa. Abenturazko *King Arthur* filma emango dute. Antoine Fuqua zuzendaria-rena da eta Clive Owen, Keira Knightley eta Stellan Skarsgard aktoreek parte hartzen dute, besteak beste. 22:30ean hasiko da saioa. Bigarren emanaldia, berri, martitzenean, hilaren 7an, izango da. Kasu horretan, horren ezaguna den marrazki bizidunen *Shrek* komedia emango dute. Hori ere 22:30ean izango da.

OSOKO BILKURA

Garoñako zentral nuklearraren aurkako mozioa, osoko bilkuran

UBANE MADERA

Emakumeen aurkako indarkeria, hAMAlauren eta EAJ-EAren idatzi bana eta Garoñako zentral nuklearraren kontrako mozioa landu zituzten zinegotziek eguzteneko batzarrean. Plazako zuzaitzen inausketa eta Arexolako lanak ere izan ziren berbagai, besteak beste.

Alkatearen dekretuen berri eman ostean, Albinako itxuraren gaineko sententzia jakinarazi zien alkateak zinegotzietan eguzteneko batzarrean. Gero, plazako zuzaitzen inausketa modu egokian egiteko aukerak aztertu zituzten. Eta Arexolako lanak ere landu zituzten, Arexolako kale eta plazaren zolatze lanen esleipenarekin lotutako burokrasia kontua, alegia. Hain zuzen ere, Arexolako lanak bukatzeko zoladura lanak besterik ez dira falta. Horrenbestez, eta lanok agudo esleituko dituztelakoan, Arexolakoek laster txukun-txukun izango dute auzoa.

Bestalde, hirigintzako bestelako kontuen artean, udalbatzarri proposatu zioten 2005eko



U.M.

Zenbait herritar kezkatuta daude plazako zuzaitzek arriskua eragin dezaketelako.

Foru Planari udaletxearen teilatua konpontzeko dirulaguntza eskatzea.

MOZIOAK ETA BESTE

Eta horrekin eta bestelako gaiekin batera, hiru mozio eta idatzi bat

ere aztertu zituen udalbatzarrek. Idatziaren bitartez, emakumeek jasaten duten indarkeria salatzea zen udalbatzarren asmoa.

Mozioei dagokienez, bi politikarekin lotutakoak ziren: hAMAlauren eta EAJ-EAren aurkeztutako

ak. Hala, hAMAlauren mozioaren bitartez, oro har, partiduen legea dela eta hAMAlauren jasaten dabilen apartheid politikoa salatu zuten; gaineratu zuten egoera horri buelta emateko aukera badagoela, EAJ-ren, EAren, EBren eta Aralarren aldetik borondate politikorik egonez gero; eta herritarrek emandako botoen arabera udaletxean dagozkien jarlekuak bueltatzeko ere eskatu zuten hAMAlauren.

Mozio horri erantzuteko, EAJ-EAren beste bat aurkeztu zuen. Oro har, partiduen legea salatu ostean, zioen udalerrian talde guztiendako partaidetzarako bideak ahalbidetzen jarraituko dutela; eta "Udalean lan egiten eta konfiantza euren gain duten herritarren ordezkatzen jarraituko dutela".

Bukatzeko, hirugarren mozioan, Arabako bestelako talde politiko, sindikal eta kultural ugariarekin bat eginez, proposatu zuten Garoñako zentrala ixteko eskatzea; horretarako beharrezko segurtasun neurri guztiak hartuz.

Edozelan ere, albiste hau idaztean, batzarra bukatu barik zegoenez, ez dugu jakiterik zein erabaki hartu zituen udalbatzarrek.


Udaletxeko langileak oraingo astean hasi dira material guztia berritutako bulegoetara eramaten

U.M.

Azken xehetasunak besterik ez da falta udaletxeko lanak bukatzeko. Gauzak horrela, oraingo astean zenbait orduz itxita izan da udaletxea, langileek altzariak-eta dagozkien bulegoetara eramateko.

Udaletxeko egokitzapen lanen ostean, udal zerbitzuak lekuz aldatuta ikusiko ditugu datorren astetik aurrera. Banaketa berriaren arabera, goiko solairuan herritarrendako harrera bulegoa izango da

(Judith eta Txaro); bertaraino iristeko igogailu berria erabil daiteke. Leku berean, armairuen bitartez banatuta, koadrilako langileek eta euskara teknikariak jardungo dute. Eta solairu berean, baina, bestelako bulegoetan, Idazkaritza, Kontuhartzaitza eta Alkatetza izango dira. Beheko solairuan, berri, gizarte laguntzailearendako eta bestelako teknikariendako gunea egokitu dute. Lehengo leku berean izango da osoko bilkuren aretoa; kasu horretan ere igogailuan iritsi daiteke bertaraino. Eta artxiobak berritutako bi solairu izango ditu.



U.M.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ZUBIZARRETA
LANTEGIAK

Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

Taberna Berri
jatetxea

Durana 26
ARETXABALETAKO
Tel.943 79 20 67

guztemenuak
preziositateak

egin zure sukera

ERRETRATU ZAHARRA

Parrokiako
antzinako
abesbatzarena

Parrokiako abesbatza ekarri dugu oraingo honetan foto zaharraren atalera, jende multzo galanta. Gure berriemai-leek egundoko lana hartu eta argazkiko guzti-guztien izenak esan dizkigute. Hala, bada, irakurleen lana errazte aldera, mutikoen izenekin hasiko gara. Lehen ilaran, ezkerretik eskumara: Santos Azkoaga, Juanito Zabalo, Roman Balantzategi, Manolo Maza, Jose Mari Juldain, Carlos Ugalde eta Jose Mari Kortabarria. Bigarren ilaran: Luis Maria Maidagan, Manolo Sanz, Vitoriano Aranbarri, Rafael Mendizabal eta Antonio Untzueta *Santurce*. Mutikoen eskuma aldean makurtuta dauden bi gizonak dira Felix Ugarte eskuma-

eskumakoa eta Antonio Ezkurra bestea. Gizonezkoen izenak esango ditugu orain. Lehenengo mutikoen gaineko ilarakoak esango ditugu, behetik hasita hirugarren ilarakoak, ezkerretik eskumara: Lucio Markaide, Alfonso Gorroñoegoitia, Pedro Barrutiabengoa, Jose Inazio Velez de Mendizabal, Jose Castellano eta Xanti Etxebarria *Zurdo*



de Mondragon. Laugarren ilaran, erdi makurtuta daudenak esango ditugu: Jose Exposito (ezker-ekerrean), Fernando Villar (gorago, besoa belauenean duena), Javier Olalde (Villarren azpikoa), Felix Arriaran (Olalderen azpian), Jose Mari Urtzelai (gora), Jose Arregi (behera) eta Laureano Letamendi. Bukatzeko, zutik daudenak esango

ditugu, ezkerretik hasita: fraidea Mateo anaia da eta haren ondokoa (musuzapiduna) Julio Galarta. Eta gorengo ilarakoak, ezkerretik hasita: Murgoitio, Jose Ramon Zubillaga, Inazio Goikoe-txea, Donato Aranburuzabala, Vicente Urtzelai, Dionisio Isasmendi, Mariano Azkarate, Eustasio Markaide, Jose Otxoa, Teodoro Mendizabal, Jose

Antonio Goñi (goikoa), Iñaki Arrieta (behean, txapelarekin) eta Juan Larrañaga. Eta haren azpiko betaurrekoduna Eloi Urtzelai da, ondokoa Juanito Aperribai eta azkena Pablo Zumelaga.

Argazkia: Justino Uribesalgo.

Informazioa: Julio eta Alfonso Gorroñoegoitia.

Urtea: 1941-42.

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Urbanizazio
lanen karga
eta zorrak

Azken urteotan Arrasaten urbanizazio lan handiak egin dituzte, eta horrek gastua du. Kostu horiek dira espaloia egitea, argiak jartzea... Eta lan horiek lurren ugazabek ordaindu behar dituzte. Sistema bat da lursailen jabeen artean ados jartzea, eta beste bat Udalak lanak egin, eta faktura ugazabei pasatzea. Eta orain dela urte batzuk arazoak izan ziren kontu horrekin.



≈ 1994 Mugarrietako urbanizazioaren kasuan lurjabeak ez zeuden batere gustura, gehiegizko lanak egin ei zituztelako euren kontura.



2004 Eta gaineratu zuten Udalak ez zuela batere erraztasunik eman ordainketa egin ahal izateko, eta inpotentzia handia sentitzen zutela.

ARRASATEKO BATZOKIA

Berriz ere zabalik!

- Eguneko menuak.
- Aste bukaeretakoa menu bereziak.
- Afariak enkarguz ematen ditugu.

Iturriotz 41. ARRASATE

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

OSORIK
PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

Edertasun gida



ILE APAINDEGI MISTOA

iaran

Zerrajera 1.
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

ILE APAINDEGIA

virginia.L

MISTOA

Lapurdi 3. Zigarrola.
ARRASATE
Tel.: 943 79 65 65

AUSART

Ile apaindegi mistoa

Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

ILE APAINDEGIA

ILEA
UNISEX

Ferrerias 14 - 943 79 87 62

Lore

Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA O'NEAL Ayer HR CLATIN BIOTHERIA VALMONT



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

Opel Astra berria
Ulertzen duzu zergatik dioten etorkizuna
geroz eta azkarrago datorrela?



Etorkizuna heldu da Opel Astra berrira. SAFETEC sistemari esker teknologia aurreratuenaz bere mailako autorik seguruena da EuroNCAP* 5 izarrekin. Diesel gamako motor indartsuenak eta ondorengo motor berriekin 1.9 CDTI 120 ZPtik 150era eta gasolina motorrak 200 ZPrainokoak.



Eta gainera ekipamendu osoenarekin: •IDS^{plus} Gidatze Sistema Interaktiboa • ESP^{plus} Egonkortasunaren Kontrol Elektronikoa • Tcplus Trakzio Kontrola • Sport Switch botoia • AFL faro moldakorak • ALC argitasunaren kontrol automatikoa • ABS balazta sistema • 6 aire-zaku • CBC Balazten Kontrola Bihurguneetan • EHPS Direkzio Lagundua • HSA Irteera Sistema Aldapetan.

12.670 €** Astra bat daukazu. Proba ezazu 902 200 590 telefonoan edo www.opel.es webgunean.

*Puntuazio altuena alboko eta aurretiko inpaktuan txoke proban eta umeen babesean Sedan trinko kategorian. **Salmenta prezio gomendatua Penintsulan eta Balearretan Opel Astra Essentia 5 ate 1.4 16v 90 ZP autoarentzat hilabete bukaera arte. BEZa, garraioa, matrikulazio zerga, kit akzesorioak, promozioko deskontua eta gasolina Prever Plana bame. Astra gama: kontsumoa (l/100km) mistoa 4,9tik 9,3ra. CO2 emisioa (g/km) 132tik 223ra.

Giauto

San Andrés 10D. Tel. 943 77 30 10. **ARRASATE**